



eskolarteko **orientazio** probak'19 - GIPUZKOA

PARTE-HARTZE OINARRIAK

1- Eguna eta lekua: Martxoaren 24an Ametzagainako parkean. (Donostia).

2- Partaideak eta mailak: Gipuzkoako ikastetxeetako neska-mutil guztiek har dezakete parte. Maila guztiak kadetetaraino, hau da, 16 urteak arte (barne).

3- Izen-ematea: probaren aurreko osteguna baino lehen internet bidez elkarte antolatzailean: GOT Gipuzkoako Orientazio Taldea. www.GOTorientazioa.org. **3 €** bakarkako partaideko eta **5 € familiarako**. Izen-emateko orria betetzea derrigorrezkoa da. Ez bidali Federaziora.

- ✓ Izen-emateak honakoak jasotzeko eskubidea ematen du: mapa 1 partaideko edo familiarako, anoa-hornidura, diploma eta **Negua eXtreme Sportwear** markaren kamiseta bat.

4- Harrera: Harrera eta irteera lekua, honakoa da:

- ✓ Aparkalekurik hurbilena, Garberako gune komertzialekoa izango da.
- ✓ Harrera gunea, Ametzagaina parkeko ekialdeko sarreran kokatuko da.

Atera baino lehen partaide guztiek baieztatu beharko dute beren parte-hartzea harrera mahaian. Bertan jasoko dute partehartzaileek beharko duten matxarda edo pintza eta laguntzaileak ere erregistratuko dira.

5- Ordutegia: irteerak piskanaka emango dira, minutuero, goizeko 10:00ak eta 12:00ak bitartean. 14:00etan itxiko da ibilbidea. Helmugan diplomak banatuko dira.

6- Froga sistema eta helburuak: eskola kiroleko proban 2 ibilbideetako bat aukeratu ahal izango da.

- ✓ Ibilbide horia.
- ✓ Ibilbide laranja.

Bakarka, taldean edo familian parte hartu ahal izango da. Mendian zehar kokatuko diren balizak bilatu beharko dituzte partaideek, nagusiki mapaz lagunduta eta iparorratzaz ere, edukiz gero. Antolatzaileek ibilbidean zehar jarritako ordenean bilatu beharko dira balizak.

- ✓ Helburuak: kirol orientazioa ezagutzea, praktikarekin ondo pasatzea eta mendiko balizak bilatzea.





GIPUZKOAKO MENDIZALE FEDERAZIOA

*Eskola Mendi * Montañismo Escolar*



7- Material gomendagarria: mendian ibiltzeko jantzi egokiak. Iparorratza eramatea gomendagarria da (baina, ez edukitzekotan, antolatzaileek maileguan utziko dituzte iparorratzak bukatu arte).

8- Sariak, opariak: partaide bakoitzak diploma eta **Negua eXtreme Sportwear** oparitutako kamiseta bat jasoko du.

9- Lehen sorospenak: sorospen zerbitzua Gipuzkoako DYArean ardurapean izango da.

10- Zaborra: parte-hartzaileek sortzen duten zaborra beraiek jaso beharko dute beren motxilan edo antolatzaileek jarritako zaborrontzietan.

11- Joan-etorria: berebil partikularrak erabiltzeak, arazo desberdinak sor ditzake: segurtasunezkoa, trafikozkoa, aparkalekukoa, CO² igorpenak, etab. Garraio kolektiboa erabili. **TALDEAN GOAZ!**

12- Ezustekoak: ezustekoren bat gertatuz gero, antolatzaileen esku egongo da zer egin erabakitzea.

13- Argazkiak eta bideoa: jarduera publikoak izanik, argazkiak edo videoak irudiak hartuko dira. Iru-diok seguraski argitaratuko dira bai prentsan bai Federazioaren webgunean eta bai elkarte antolatzailearenean.

14- Oharra: probetan izen-emateak antolakuntzako baldintzak onartzea dakar berarekin.

IZEN-EMATEKO BOLETINA:

Web honetan: www.GOTorientazioa.org

